

ALBANIA IPARRALDEAN ESKALATZEN

2021 urtearen lehen hilabeteak ez dira errazak izan. 2020an bizitakoari jarraituz, konfinamendu perimetrala eta antzerako kontzeptu berrien esanahia eta ondorioak zeintzuk diren ondo ikasi dugu. Herritik atera ezinak herritik ateratzeko gogoa areagotu dit. Ekaina bukatu baino lehen oporrak hartu behar eta egoera nolakoa izango zen ezjakintasunaren ondorioz edo, behin eta berriz pentsatzen nuen oporretan herritik atera ezin banuen, nahiagoko nuela lanera joan. Sentimendu irreal horrekin, ordenagailu aurrean jarri eta kuriositate hutsez, Googlen sartu nintzen: "donde viajar sin PCR", "países sin restricciones"... eta beti toki berean bukatzen nuen, Albanian. Hurrengo pausoa, "Google irudiak" atalean izan zen: "Albania escalada", "Albania montaña"... eta ikusitako irudiekin harrিতuta, Urkori buruan nuena komentatu (honek ere oporrak baitzuten) eta denbora gutxian hegazkineko tiketak erreserbatu eta bidaia antolatzen hasi ginen.

PLAN ALDAKETA

Ekainaren hasieran egin genuen bidaia. Albania iparraldera joan ginen eta gure asmoa Theth bailaran kokatuta dagoen Arapit mendia inguruan zerbait egitea zen. Arapit mendia (Maja e Harapit, 2217 m) albaniar Alpeetan kokatuta dago eta hegoaldean 800 metroko horma ikusgarria dauka. Igoera ezberdinak ditu baina gure arreta eta mendi honekiko interesa 18 luzez osatutako *Raki on Arapi* bideak sortu zuen, lehen aldiz 2010ean alemaniar talde batek eskalatutako ia 1000 metroko bideak. Hala ere, bide hori niretzat momentuz amets bat besterik ez denez, inguru horretan konpromezu txikiagoa eskatzen duen beste zerbait egitearekin konformatzen nintzen. Zoritxarrez, elur askorekin topatu ginen eta neguko materialik eraman ez genuenez, azken uneko plan aldaketa egin behar izan genuen. Horrela, Theth bailararen beste aldera joan ginen, Valbonara.

Gure plana aldatuta, ez ginen oso ziur ez nora gindoazen ez eskaladarekin zerikusia zuen zerbait egiteko aukerarik izango ote genuen, baina tokia zoragarria zen eta mendian gora egitea erabaki genuen kanpamentua montatzeko inguru egoki baten bila, eta gero gerokoak.

Gora iristea eta kanpin denda non jarri erabakitzea lan nekeza izan zen. Ez zegoen urik inguruan. Azkenean, neguan sortutako elur plaka batzuk zeuden inguru bat aukeratu genuen. Une hartan oraindik ez genekien arren, eguraldiaren ondorioz, ordu asko pasako genituen bertan eta uste baino garrantzi handiagoa izango zuen toki egokia aukeratzeak.


Eguraldi txarra tokatu zitzaigun eta egunak kanpin dendaren inguruan pasatzen genituen, inguruko menditxoak behin eta berriz

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Maider Semper
(Hernani, 1995)

Basoa eta Landa Inguru-nearren Kudeaketa eta Mendi Ertaineko Gidari izateko ikasketak bukatuta, Polonia, Nepal, Marocco, Albania...ezagutzeko zortea izan du. Bere motibazio nagusia, ordea, hainbeste eskaini dioten Pirineoetan gauza berriak egitea da.



igo eta jaitsiz, argazki batzuk atera eta askoz gehiago egin gabe. Oker ez banago, egun bat oso osorik kanpin dendatik mugitu gabe ere pasa genuen. Albania osoa ezagutzeko genuela eta bertan denbora galtzen ari ginen sentzazioarekin, behera jaistea ere pentsatzen hasiak ginen. Azkenik, toki horri azken aukera bat emango geniola eta egun bat gehiagoz geratzea erabaki genuen, hurrengo egunean eguraldi txarrarekin esnatuz gero jeitsi egingo ginelarik. Hurrengo egunean ordea, zerua ostarre urdin batzuekin esnatu zen. Ez zuen egun eguzkitsua eta distiratsua egiten, baina hala ere, hodeien artetik argi izpi batzuk sartzen ziren... A ze poza! Behingoz zerbait egingen saiatzeko aukera izango genuen!

ESKALADA EGUNA

Tamaina politeko pareta bat geneukan gertu. Estetikoki polita zen eta eskalatzeko oso itxura erakargarria zuen. Askotan gerturatu ginen bertara, argazki mordoa atera eta igotzeko aukera desberdinei buruz ere sarritan hitz egin genuen. Urkok eskalada lerro bat nahiko garbi ikusten zuen, eta nik, tripetatik erdipurdi esnatu nintzen arren eta "ondo" eskalatzeko gai izango ote nintzen zalantzak nituen arren, ez nuen saiatu gabe geratu nahi. Bi aldiz pentsatu gabe materiala prestatzen hasi eta martxan jarri ginen. Gure hasierako plana Arapit mendiaren inguruan jada irekita zegoen bideren bat egitea zenez, ez genuen bide berri bat irekitzeko materialik eraman. Geneukan

Kanpamentua jartzeko aukeratu genuen bailara, *Valbonë Valley National Park*



Bigarren luzeko fisura behetik ikusita




guztia motxiletan sartu genuen: friendak, estriboak, gantxo batzuk, soka, kordinoa... Baina, ez iltzerik, ez mailurik... eta ordurako agian faltan botako genituela ohartzten hasiak geunden. Hala ere, aurrera egitea erabaki genuen.

Ordubete eskas ibili ondoren, hormaren oinera iritsi ginen. Behe aldea elurtuta zegoen eta guk nahi genuen sarrerara hurbiltzeko elur plaka handi baten eta hormaren artetik tentu handiz pasa behar izan genuen. Iritsi ginen nahi genuen puntura eta urduritasuna nabaritzen hasi nintzen. Hainbeste aldiz imaginatu eta irudikatutako eskalada bidearen azpian ginen, gorantz abiatzeko prest. Zerua urdin, motibazioz gainezka, hormaren itxura ederra... eskalada egun polita izango zela zirudien.

Lehen metroak eskalatzeko hasi zen Urko, hasieran nahiko zuzen, gero zeharkaldi txiki bat eskuinerantz, zuhaixka baten ondotik pasa eta gero bistaz galdu nuen. Konfiantzarekin zihoala zirudien eta beraz, lasai gelditu nintzen behean, nire txanda iristeko desiatzen, "bilera!" entzun orduko, di-da prestatu eta gorantz abiatzeko gogoz. Lehen luze honek metro asko zituen, gorputza berotzeko eta gihar guztiak puntu-puntu jartzeko aparta. Eskaladari dagokionez, helduleku onak, arrokkaren kalitatea oso ona, mugimendu finen bat edo beste... baina, orokorrean, gozatzekoa. Ordura arte dena bikain zihoan eta lehen bileran poztasuna nabari zen, baina oraindik hasi besterik ez ginen egin.



Fisuratik irteten, bilerara iritsi aurreko pausua nola egin asmatzen



Bidearen krokisa

Bigarren luzeari ere eskuineranzko zeharkaldi batekin ekin zion, ondoren itxura garbia zuen diedro moduko arrakala batean sartu eta honen amaieran bigarren bilera jartzeko asmoz. Fisikoki aurreko luzea baino gogorragoa izan zen, gehiago estutzekoa, baina arroka kalitateak izugarri ona izaten jarraitzen zuen. Artesiaren amaieran ordea, bigarren bilera jartzea pentsatutako tokian, arroka oso hauskorra zen. Ukitzen duzun guztia hautsi egingo den sentsazio hori ez da batere atsegina. Oraindik asko geratzen zitzaigun eta arroka-egoera kaxkar horrek tentsio eta urduritasun pixka bat sortu zigun. "Esperoet zati hau bakarrik izatia", esan nion Urkori.

Hirugarren luzea, ordura arte eskalatu-takoarekin alderatuta erabat desberdina zen, sabai erraldoi baten azpitik egin genuen. Honen itxura erabat ikusgarria zen. Eskalada, fisikoki ez zen aurrekoa bezain gogorra agian, baina sabaia gurutzatzeko toki egokia aukeratzea garrantzitsua zen helduleku onak izateko. Sabaia eta hormaren arteko tolesturan arraildura horizontal bat zegoen, babeserako materiala sartzeko aukera oso ona ematen zuen eta eskuentzat ere oso ona zen. Oinen kasuan ordea, katu-oinengan konfidantza osoa jarriz eta hormari itsatsiz egin behar zen. Bukaeran, sabaitik

irteteko, asko estutu beharko genuela ematen zuen, baina azkenean, indarra erabili beharrean,

gorputza ondo kokatzea zen gakoa eta asmatuz gero gustura egiteko moduko pausua zen.

Hurrengo egunean materiala kanpalekuan lehortzen





Eguraldi txarrarekin inguruan egindako mendi buelta. Urkoren atzean, *Maja e Thatë* (2406 m), eskalatu genuen hormaren mendilerroko gailur altuena

Laugarren luzeak, bide osoko motzenak, denbora asko kendu zigun. Aurreko luzeetan ez bezala, Urko zalantza askorekin ikusi nuen, aukera ezberdinak probatzen, gora, behera, eskubi, ezker... eta ni gero eta urduriago jartzten ari nintzen. Arroka ere ez zen hasieran bezain ona, harri puska handiak zeuden kokolan. Zailtasun maila, berez, ez zen altua, baina hormak luzea babesteko aukera gutxi ematen zituen, eta hori gutxi balitz, erorketa posible batek izugarritzko beldurra ematen zuen. Faktore psikologikoa eragin handia iza-

ten ari zen eta denbora pasa ahala, egoerak sortutako tentsioa ere areagotzen ari zen. Ez dakit zenbat denbora pasa zen, baina luze. Azkenean, Urkok lortu zuen nola edo hala metro batzuk gora egin eta beste bilera bat jartzea, sabai txiki baten babesean. Ni ordurako dardarka nengoen, ez dakit hotzagatik ala sortutako ziurgabetasun egoeragatik, baina ezin nuen nire gorputza sentitu. Nolabait abiatu nintzen gorantz, baina ez nuen batere ondo pasa. Bilerara iristen ari nintzela, Urkori entzun nion "a ze arpegitxoak dakazuna". Sabai-

txoaren azpian eseri nintzen, belak besoe-kin besarkatuta, eta pixkanaka gorputza bere onera etorri zen, tenperatura ere berreskuratuz. Toki hori oso eroso zen, babes sentazio handia ematen zuen eta bertan denbora pixka bat egin genuen berriketean, ordura arte egindakoaz hitz egiten, eta jarraian zetorrena nola egin baloratzen. Ur pixka bat edan, zerbait jan eta denbora aurrera zihoala konturatuta, us-tez azkena izango zen luzeari ekin genion.

Gailurra ikusi ez arren, bagenekien gertu egon behar zuela. Eta zuzen geunden, hortxe



zegoen: sabaia gurutzatu, bertatik irten eta horma bertikal teknikoki ez oso zail bat eskalatu eta bertan. Horrela ikusita, konplikazio berezirik gabekoa. Egun hartan, ordea, hainbeste maite dugun naturak, erronka izugarria bota zigun, eta erraza izan beharko zukeenak, faktore ezberdinak medio, fisikoki zein psikologikoki gainditu beharreko hesi erraldoi bihurtu zen.

Zerua kolore iluna hartzen ari zen, haizea ere, gero eta hotzagoa. Urko eskalatzen hasia zen, luze horren nondik norakoak eraba-

kitzen, eta ni urduri, irteteko abisuaren zain, neure buruari behin eta berriz "ez mesedez, ekaitza ez" errepikatuz. Eguraldia kaskartzten ari zen, eta gainera, sabaitik irtetea uste baino konplexuagoa izango zela konturatzen hasiak ginen. Arroka puskaka erortzen zen, hormaren egoera ezegonkorra zen eta zaila zen heldulekuez fidatzea. Azkenean, eskalada artifizialeko materialaren laguntzaz, Urkok lortu zuen gora iritsi eta bilera jartzea. Meritu izugarria zuela pentsatu nuen.

Nire txanda zen. Eskalatzen hasi nintzeanean hain gutxi desiratzen nituen euri tantak entzun nituela iruditu zitzaidan, baina sabaiak babestuta, oraindik ez nuen ezer sentitzen eta agian libratuko egingo ginela pentsatu nuen. Pentsamendu horrek, ordea, gutxi irau zuen. Sabaitik atera eta jabetzeko denborarik gabe, blai eginda nengoen. Hantxe harrapatu gintuen, lehenengo ekaitzak eta gero gauak. Urkok zerbait oihukatu zuela konturatu nintzen, baina euri tanta potoloak besterik ez nituen entzuten hormaren aurka. Eskailerak zeuden puntura iristean abisatzeko esaten ari zela ulertu (nahi izan) nuen eta hala, "hemen nago!" oihukatu nion. Zerbait gehiago esan zuen, baina ezinezkoa zen ezer ulertzea. Goitik behera blai eginda, euri tanten erruz begiak irekitzeko nahiko kome-riekin eta soka eta hormaren arteko marruskadurak eragindako harrien erorketa etengabearekin (kaskoak lan handia egin zuen egun hartan), handik osorik ateratzea miraria izango zela pentsatu nuen. Momentu horiek lau-so samar izan arren, gogoratzen dut ezinean nenbilela, arroka nondik eutsi asmatu ezinik. Bata besteari oihuka eta ezer ulertu gabe, amorrua, nekea, hotza, beldurra...denetik nabaritu nuen. Gora iristean, euri zaparradari haize benetan zakarra gehitu zitzaion. Biok dardarka ginen, baina ez genuen lasaitzeko astirik, jaitsi egin behar genuen, eta ez genuen ideiarik ere mendiaren atzeko aldetik oinez jaistea posible ote zen.

Denborarik galdu gabe, material bustia motxilan sartu, oinetakoak jantzi eta sokarekin elkar lotuta beheranzko bidearen bila abiatu ginen. Jada erdi ilunpetan, malda izugarria zuen toki batetik abiatu ginen. Metro batzuk egin ondoren soka gordetzea erabaki genuen, eta desio bakarra soka berriro atera beharrik ez izatea zen, horrek esan nahi baitzuen beharaino oinez jaisteko modua topatu genuela. Sokarekin, gainera, askoz ere motelago gindoazen eta une hartan ezinbestekoa zen gorputza mugitzen jarraitzea, hipotermiarik harrapatu nahi ez bagenuen behintzat! Belar busti eta harri askeen artetik gindoazen, oso

modu deserosoan, baina esan liteke, zorte ona izan genuela. Pixkanaka gero eta behe-rago ginen, pinudia gero eta gertuago, haizea apaltzen ari zen eta euri zaparrada ere ahultzen, gero eta lasaiago sentitzen hasi ginelarik. Ziur itxura tamalgarria izango genuela, baina ni behintzat, bat batean oso pozik sentitu nintzen. Behean ginen. Oraindik goizean motxilak utzitako tokira igo eta kanpin-dendara iristea falta zitzaigun, baina lortu genuen handik osorik ateratzea eta sentsazio hori izugarria zen.

BIDE BASATIAN BLAI 205 m

Uda pasa da eta bai Urko eta bai ni bakoitza gure aldetik ibili garen arren, irailaren bukaeran, azkenean elkartu gara oraindik egin gabe bidearen krokisa osatzeko. Argazkiak ordenagailura pasa, bizitako abentura gogoratu... Dena urrun dagoela dirudi orain. Bideari izena jartzea ez da erraza izan. Egun hartan hainbeste gauza pasa zirenez, zaila da hitz edo esaldi bakar batean dena laburbiltzea. Baina gauza batean ados geunden: egindako jardura harro egoteko modukoa zen eta izen apropos bat jarri behar genion. Azken finean, une hartan egoera zail batean geunden arren, egun hura ikasketa izugarria izan zen eta emaitza paisaia basati batean irekitako bide eder bat. Horregatik, azkenean *Bide basatian blai* izena izan zen gure aukera.

DATUAK

HORMAREN KOKAPENA: Albaniar alpeetako Valbona herriaren ipar-mendebalde (Valbonë Valley National Park). Zehatzago, *Maja e Thatë* (2406m) gailurra iren-ekialdean, mendilerro horretako gailur garaiena.

LUZERA ETA ZAILTASUNA: 205m, 6b+/A2

LUZEEN LABURPENA:

L1, 55 m: V+ zailtasuneko eskuineranzko joera duen luzea.

L2, 60 m: hasieran 6a zailtasuneko zeharkaldia, ondoren, 6b+ zailtasuna duen diedro itxurako fisura bertikala.

L3, 35 m: 6a+, sabaiaren azpitik eskuineranzko joera duen luzea.

L4, 15 m: V+ zailtasuneko luzea, babesteko nahiko zaila.

L5, 40 m: V zailtasunarekin sabaia gurutzatuz hasten da, ondoren, sabaitik irteteko A2 mailako pausu bat dauka eta azkenik, V+ zailtasuneko igoera bertikala, arroka nahiko hautsia dagoen hormatik.

MATERIALA: 2 joku friend (3 zenbakira arte), fisureroak eta estriboak.

JAITSIERA: igotako hormaren atzeko aldetik oinez.